



e-Irakurtzeko eskubidea!

Nahi duguna zer da

Gure erabiltzaileei formatu elektronikoan nahi diegu eman argitaratutako azken nobedadeen berri, paperezkoen berri ematen genien bezalaxe.

Baina argitaratzaile batzuk ez digute horrelakorik egiten uzten, ukatu egin baitiete liburutegiei liburu elektronikoaren mailegua egiteko beharrezkoak diren lizentziak. Inkestek agerian uzten dute "best seller" diren liburu elektronikoaren %50ak ezin direla biblioteketan lortu.

Bidezkoak diren prezio eta erabiltzeko baldintzatan nahi ditugu erosi liburu elektronikoak.

Baina editore askok eta askok oso garesti saltzen dituzte liburu elektronikoak edo, bestela, saldu ere ez dituzte egiten. Horren ondorioz, gure erabiltzaileei ezin diegu zerbitzu onik eskaini.

Nahi dugu egileek bidezkoa den ordaina jasotzea liburu elektronikoaren maileguagatik ere, paperezkoagatik jasotzen duten moduan. Era horretan, liburu elektronikoaren mailegua biblioteketan ezarriz, zabaldu egingo litzateke Mailegu Publikorako Eskubidea.

Europako Batasuneko estatu gehienetan, egileek, normalki, ez dute ordainik jasotzen biblioteketan egiten diren liburu elektronikoaren maileguengatik.

Gure nahia da hiritar guzti-guztiek –eta ez soilik ordaindu dezaketenek– liburu elektronikoetarako sarbide irekia izan dezaten biblioteketan.

Indarrean dagoen Jabetza Intelektualari buruzko Legearen arabera, editoreek uko egin diezaioke liburu elektronikoaz bibliotekak hornitzeari.

Honen guztiaren ondorioz, **Jabetza Intelektuari buruzko Lege argi bat ESKATZEN DUGU**, horrek emango baitie bibliotekei XXI. mendean duten eginkizuna betetzeko aukera, alegia, Europar Batasuneko hiritar guztiei ezagutzaren eta giza-fikzioaren aberastasunerako sarbidea, berdin biblioteka presentzialetik zein urrutikotik.

ARAUTU BEHINGOZ!

